



Ihesi

Euskal Herria ezagtituz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
ALLANDE SOKARROS

Etxebarre (Zuberoa)

Basabürüko mendien xerka

Zuberoan ia herri guztiek
dute biztanle gutxi,
eta guztietan Etxebarrek
gutxien. Haren inguruan
üngürüa egingo dugu,
Basabürüa eskualdeko
mendien ikusmenaz gozatuz
eta *Bereterretxen kantorea*-ren
oihartzunak lagun.

Etxebarrera iristeko, Atharratzeko hegoaldeko irteeran kokatua den Trinketeko taberna alboan behera sartu behar da eta Onizegainen zubi hertsu-hertsuaren gainetik Ühaitzandia ibaitxoaren beste alderat igaro. Frantsesez *'Café du Trinquet'* emana den Trinketeko tabernari dagokionez, baten batek jakingo du Agosti Xaho, XIX. mendeko ezkertiar, abertzale aurrendari, idazle eta kazetari ospetsuaren jaiotetxea izan zela. Irakurtzeko nahikoa zaila den etxe aitzindako plaka batek gogorarazten du hori. Tamalez baina, bere historiaren sustrai eta ibileretan erabat ukatua izan den –eta oraindik ere halaxe dagoen– Ipar Euskal Herrian, bakan batzuek bakarrik dakite zerbait Agosti Xahoren kontura. Hego Euskal Herrian jende nabarmen gehiagok jakiterik badu pertsonaia historiko guztiz garrantzizko horretaz.

Gogoeta horiek utzita, Etxebarrerako bidean Onizegaine eta Lexantzü herriak pasako ditugu, Atharratzetik sei kilometro baititugu egiteko bide txiki eta xarmagarri batean. Lexantzütik hiru bat kilometrorera, bide kurutzune batean eskuin alderat joko dugu –lasai, bide seinaleak daude eta euskaraz ere, hain aspaldi ez bada...–, ezkerretatik hartuz geroz Ligi eta Atherei herrietara edota Larraine eta Santa Grazira joango ginatkeelarik. Bide kurutzune horretatik 300 bat metrora, beste bide sarda batekin egingo dugu topo, errota zahar bat badelarik ezkerreko aldean. Hortxe bertan utziko dugu gure ibilgailua, oinezko ibilbidea abiatzeko. “Etxebarreko üngürüa” –Etxebarreko itzulua, alegia– izena eman zaion ibilbide hori guztia tinda horiz seinalatuta dagoenez, galtzeko arriskurik ez liteke egon behar.



Goian, Altabeko beheko borda. Laborantza herria da Etxebarre. Beheko argazkian, etxauetako pentze batzuk.

“Etxauak” eta hilarri borobilak

Oinez ibiltzeari ekiteko, eskuineko alderat eta gorantz bide gainean abiatuko gara, Etxebarre herriko etxe multzo nagusira bidean. Hori 300 bat metroan dago. Ezkerreko alderat joko bagenu, kurutzune horretan bertan dauden bide seinaleek azaltzen diguten bezala “Etxauak” alderat joango ginatke. Zubereraz, eliza inguruko etxe multzo nagusitik –herri izena ematen ahal zaiona– aldentuta dauden etxeak dira etxauak. Izen hori tokatzen zaie etxe multzo bati zein etxe bakarti bati ere. Horko bizilagunei “etxautesak” deitzen zaie, kutsu latinoko atzizkia baliatuz.

Etxebarreko herria zeharkatuko dugu ibilbidean aurrera jarraitzeko. Aurretik –edo ibilbidea amaitu eta gero– ez litzateke hilerriari bisitatxo bat egin gabe geratu behar. Ezen,

Etxebarre da hilarri borobil gehien topatzen den Zuberoako herria. Gaur egun 30 bat badaude, batzuk oso zaharrak ere, lapurretatan andana desagertu ondoren. Eliza oso-oso txikiari ere begiratu diezaiokegu, atea ez baita giltzatutakoa.

Lehen ministroaren opor leku

Herriko etxe multzo nagusiko ezker aldean azkenengoa da Jauregoitia zaharra. Ezkaratzeko ateburuari begiratzea ere komeni da, oso arraroa eta bakanetakoa baita. Etxe berri baten pare-parean da, eta gaur egun ez du egoiliarrik. Jauregoitia eta Zabaleko borda izena duen beste etxe zaharberri baten artean igarota, bide harriztatuan jarraituko dugu Etxebarreko eliza inguruari agur eginda. Zabaleko borda etxe txiki zaharberriua aipatzean, jakitekoa da horren jabe izan



Etxebarre muino batean kokatua da. Atzean, Lexantzümendi.

zirela 2007. urtean Frantziako lehen ministro bilakatu den François Fillon jaunaren gurasoak. Albiste nahiko harrigarri horren azalpena da Fillonen amona zuberotarra zela, Barkoxe herrikoa zehazki. François Fillon eta bere senideak urte luzetan oportetara etorri ziren Etxebarrera. Haatik, Etxebarren nahikoa arrakasta gutxi lortu du, 2007. urteko bozetan, Fillon lehen ministro izendatu duen Nicolas Sarkozy Frantziako presidentea eta haren UMP alderdi eskuindarrak.

Burdin mearen bidea

Etxebarreko eliza ondoko etxe multzotik aldentzen ari garela, argazki polita egiteko aukerarik izango dugu, herriaren atzean Lexantzümendi borobila daukagularik. Geu Etxebarremendiren hego-ekialdeko mazela luzeari jarraitzen dion bide harriztatuan lehenik eta arbel-bidean gero ibiliko gara. Arbelari “lapitza” deitzen zaio Zuberoan, eta herrialdeko hegats gehienak horrekin estalita daude. Arbelbidea dela esan dugu, baina xenda edo bidezidor hertsiei “kinta” izena ematen zaie zubereraz. Gure oinekin zapatzen dugun kinta hau, baina, mando-bide ere izan zen luzaz, bertatik, mando bizkarrez beraz, eramaten zelarik Etxebarreko burdin meazuloetatik irteten zen

burdin mea. XIX. mendera arte lurretik kentzen zen burdin mea hori, Larraineko burdinoletara eramaten zuten mando bizkarrez, hizpide dugun ibilbide honen zati handi batean.

Bi gaztelu dituen herria

Lehen aipatu ditugun etxauetako baserrien gainaldetik garamatza bidezidorrak. Eliza inguruko etxe multzotik aldentu eta laster ere, ezker aldetik begi bistan izango dugun muino borobil bati arreta jarriko diogu. Etxebarren “Montarrei” izen bitxia eman dioten muino hori gaztelua zen, hots, etxebartarren aspaldiko arbasoek kanpotik zetozenen erasoetatik babesteko eratu zuten gotorlekua. Apurtxo bat gorago, hegoaldera eta zuhaitzez inguratuta, bada beste gaztelu bat, handiagoa hau. Gaur egun “Altabeko bordak” izenez ezagutua da gune hori. Ibilbide honetatik bueltan behera egingo dugularik, gainaldean igaroko gatzazkio.

Anartean, gure bidezidorrak eramane gaitu gaur egun landetxe bilakatu den Ibarrenborda baserrira. Bitxi da baina, etxe hori Etxebarrekoa izanagatik, Altzai eta Arane herrien aldetik soilik dauka bertaratzeko biderik. Hortxe bisean-bisean ikusgai daukagun herria, aldiz, Lakarri da.

Ibarrenborda etxea igaro eta berehala, ezker alderat jo behar dugu bide harriztatu batean gora. Horrek Beheitiborda etxe hondatuaren alboetik pasaraziko gaitu eta aurrera jarraituz Arretalepoa baserri abandonaturara iritsiko gara, ordu erdi batez. Lapitzean eginiko kinta hau oso polita da, mehaka hertsia baten gainetik garamatzala, urritzondoan hegaltzan. Mehaka edo sakanaren beste aldean ageri den mendi gotortsu eta oihantsuak Erbexen du izena.

Bizeigaine eta Zalagaine

Sasi eta laparren artean ia desagertzen ari den Arretalepoa etxe gaixotik ehun bat metrora, arretaz ibili beharko dugu, sarda batean ezker alderat eta behera sartu beharko baitugu, “Etxebarreko üngürüa” ibilbideari jarraitzekotan. Eskuin alderat eta gorantz joango bagina Bosmendietara iritsiko ginatke, bi orduz. Bertatik ere Etxebarrerat jaisteko aukerarik izango genuke, baina txangoa lau orduz gutxienez luzatuko litzaiguke. Ezker eta behera harturik, aldiz, Erbexen errekarara jaitsiko gara berehalaxe. Erreka hori oso txikia denez, beste alderat erraz pasatuko gara. Hemen kontuz ibili, seinale horiak ez baitira beti ondo ageri zuhaitzetatik eroritako hostoen pean

Bereterretxen kantorea-ren kokaleku

Nork ez du ezagutzen bada *Bereterretxen kantorea*? Alabainan nork daki Larrainekoa zen eta Ezpeldoia etxeko alaba Margaritarekin ezkontzekotan zegoen Bereterretxe laborariaren hilketa kontatzen duen gertaera hori Etxebarren jazo zela, XV. mendean. Ezen, Ezpeldoia etxe ederra Etxebarren kokatua baita, gure ibilbide honen abiapuntu eta amaiera den lekutik oso hurbil, Oilopipitako gaztainondo oihantxoaren bazterrean. Hortxe badaude ere beste bi etxe: Bentta eta Ezpeldoigaina.

Ezpeldoia etxearen parean, bide ertzean bertan, Mauleko bizkondeak Bereterretxe hiltzearen gomutagarri den harri borobil zahar bat badago, zizelatutako marrazki eder batek apaindurik. Txango honen azken ehun metroak egin aurretik eta ibilbidetik ehun bat metroz soilik baztertuta, aukerarik izango duzue, beraz, *Bereterretxen kantorea* gertakari historiko horren lekuan bertan abesteko.



ezkutatuak izanki. Erreka zeharkatu eta berehala, xenda ezker eta gorantz seko abiatzen da. Hori izango da gure ibilbide honen zati neketsuena, Erbekeko pagadiaren gora irtetzea nahiko aldapatsua baita. Une batez, burdin hesi batez inguratua den leize edo osin baten gainetik pasatzen da xenda.

Azken batean, Erbeke eta Bizeigain mendien arteko lepo batera iritsiko gara, horrek nahikoa egoki emana izan zaion izena “Garategorena” daukalarik. Aski laster, zuhaitzen gerizapetik irtetzean, xenda seinalatuak Bizeigain mendiaren gailurretik (828 metro) igarotzeko aukera emanen digu. Nekadura apur bat pairatzen badugu, paradarik bada ere

pare-parean eta bazkalekuaren beste muturrean ageri den Obiagako bordara zuzen-zuzenean joateko, zeren eta ibilbide seinaleduna bertatik ere pasatzen baita. Obiagako bordatik aurrera lur-bide polit batek lagunduko gaitu Zalagaine mendiaren ekialdeko malda den bizkar luzera. Zalagaine da, bere 1.050 metroekin, Etxebarreko gailurra.

Ikusmen zoragarriko jaitziera

Obiagako bordatik datorren lur-bidearen bukaeran, Etxebarre eta Ligi-Athereitik Bosmendiataro darman bide harriztatuarekin egingo dugu topo, baina ez dugu hau baliatuko buelta egitean, bai ordea iraztorra eta otatze artean maldaren behera

doan lur-bidea. Hemen kokatzen da ere Zalagaine igoera, iraila oroko lehen larunbatean egiten den “Gailurretako rallya” auto-lasterketako probetatik bata. Etxebartarrek “zerra” deitzen dioten bizkar luze horretatik, ikusmira zoragarria gozatzeko aukerarik daukagu.

Zerrako lur-bidea Etxebarreko Alkornoa etxaldean bukatzen da eta hemendik behera 300 bat metrotan bide txiki batean ibiliko gara, Oilopipitako gaztainondo basoan, hiru etxe dauden lekura iristean, lur-bide batera berriz sartu arte. Horrek bizpahiru ehun metroren buru, gure txangoaren abiapuntura eramango gaitu, bospasei ordu behartu dizkigun ibilbide guztiz gozagarri bati amaiera emanda. ■

Zalagaine mendi zerratik behera eginda, ezkerretik eskuinera ageri diren mendiak: Erbeke, Etxebarremendi, Lexantzümendi, Maidalena.

